11	135,086,622	4.42 ± 0.04	0.14	138.13	41.54
12	133,275,309	4.36 ± 0.04	0.14	136.28	40.77
13	114,364,328	3.74 ± 0.04	0.12	116.94	38.55
14	107,043,718	3.50 ± 0.03	0.11	109.46	40.83
15	101,991,189	3.33 ± 0.03	0.10	104.29	42.03
16	90,338,345	2.95 ± 0.03	0.09	92.38	44.58
17	83,257,441	2.72 ± 0.03	0.09	85.14	45.32
18	80,373,285	2.63 ± 0.03	0.08	82.18	39.78
19	58,617,616	1.92 ± 0.02	0.06	59.95	47.94
20	64,444,167	2.11 ± 0.02	0.07	65.90	43.80

Table 2


Length, weight and GC content of human chromosomes, genome and mitochondrial DNA

Chromosome	Length (bp)	Length (cm)	Weight (pg)	Weight (fg)	GC%
21	46,709,983	1.53 ± 0.01	0.05	47.76	40.94
22	50,818,468	1.66 ± 0.02	0.05	51.97	47.00
X	156,040,895	5.10 ± 0.05	0.16	159.55	39.53
Y	57,227,415	1.87 ± 0.02	0.06	58.52	40.03
Total (1-22, X, Y) ^a	3,088,269,832	100.96 ± 0.97	3.16	3157.87	40.87
Unplaced	153,667,028	5.02 ± 0.05	0.16	157.13	
Total male (46, XY) ^b	6,270,605,410	205.00 ± 1.97	6.41	6411.94	40.91
Total female (46, XX) ^b	6,369,418,890	208.23 ± 2.00	6.51	6512.98	40.88
Mean (male and female)	6,320,012,150	206.62 ± 1.99	6.46	6462.46	40.89
mtDNA	16,569	0.00054	0.000017	0.02	44.36
Mean mtDNA per cell	56,793,727	1.86 ± 0.02	0.06	58.08	

Estimazioa: 2 metro

Kromatina


- DNAREN paketatze-mailaren arabera, kromatina ez da uniforme.
- Heterokromatina: bikor dentsoetan dagoen kromatina da, periferian kokatzeko joera duena eta kondentsazio maila handia duena.
- Eukromatina: dispertsoagoa da eta kondentsazio maila baxuagoa du.
- Kondentsazio maila egoera transkripzionalarekin erlazionatuta dago, eukromatina aktiboki transkribatzen den DNARI dagokion bitartean, heterokromatina transkribatzen ez den DNA da.






eukromatina heterokromatina

Kromosomen itxura

- Kromosomaren itxura aldatuz doa zelularen bizitzan zehar.
 - Zelula erdibitzen hasi arte, kromatinak itxura bikortsua edukitzen du, baina justu zelula zatitu aurretik, kromosoma bakoitzaren DNA bikoiztu egiten da, hau da, bere buruaren kopia bat ekoizten du.
 - Gero, zatiketa zelularrean kromosomak kondentsatu egiten dira, eta mikrofotografietan ikus daitezke. Lehenago firu-itxurakoak dira, eta geroago makil-itxurakoak.




Metaphase chromosome



Kromatina

Chromatin fiber



Nucleosomes




DNA



DNA + histonak

Histones


Paketatze maila desberdinak



Giza-kromosomek nukleoan okupatzen dituzten eremuak

Gizakiaren kariotipoa


Kromosoma autosomikoak



Lur zizarearen kariotipoa





b





Erribosomak

- **ERRIBOSOMAK** RNA erribosomikoz eta proteinez eraturiko partikula txikiak dira, mintzik gabeak.
- Proteinen sintesia burutzen dute.
- Libre egon daitezke zitoplasman edo estalki nuklearraren eta erretikulu endoplasmatico bikortsuaren mintzaren kanpoaldeari lotuta.
- Erribosoma libreek zitosolean funtzioaren bat duten proteinak sintetizatzen dituzte gehienetan; aldiz, loturik daudenek mintzetan txertatzeko helburua duten proteinak edo zelulatik kanpo garraiatuko direnak sintetizatzen dituzte.




4.7 Endomintzen sistema

→ Endomintzen sistema organulu-multzo bat da, proteina eta lipidoak sintetizatu, eraldatu eta garraiatzen dituena.

ENDOMINTZEN SISTEMA nukleo eta mintz plasmatikoren artean elkar eragiten duten organuluek osatzen dute.

Bere funtzio nagusia lipido, entzima eta proteinak sintetizatzea da, sekreziorako edo zelula-mintzetan txertatzeko.


Halaber, toxinak degradatu eta hondakinak birziklatzen ditu, eta baditu beste zenbait funtzio espezializatu ere. Sistemaren osagaiak aldakorrak dira zelulen arabera.



Endomintzen sistemaren osagaiak:

- Estalki nuklearra
- Erretikulu endoplasmatikoa
- Golgi aparatua
- Lisosomak
- Bakuoloak
- Mintz plasmatikoa

Endomintzen sistema, zeinean lipido eta proteina asko sintetizatzen diren.




A Nukleoaren barruan proteina-sintesisirako DNAREN instrukzioak RNARA transkribatzen dira, zeina nukleoko poroetan zehar zitoplasmara kanporatzen den.

B RNAREN parte bat **erretikulu bikortsuko** erribosomak itzultzen dute polipeptido-kateetara. Kate horiek erretikulu bikortsuan sartu eta bertan eraldatzen dira, behin betiko forma lortu arte.


C Erretikulu bikortsutik askatutako **besikulek** proteina berriak Golgi aparatura daramatzate. Beste proteina batzuk erretikulu bikortsu barnetik mugitu eta erretikulu leunerraino iristen dira.

Endomintzen sistema, zeinean lipido eta proteina asko sintetizatzen diren, gero beste lekuren batera eramateko.



D Erretikulu bikortsuko proteina batzuk besikula berrietan bildu eta Golgi aparaturantz bidaltzen dira. Beste batzuk erretikulu leunaren entzima bihurtzen dira, eta hauek lipidoak osatu edo toxinak inaktibatzen dituzte.


E Golgi aparatura besikuletan iritsitako proteinak beren azken formaraino eraldatu eta sailkatu egiten dira. Besikula berriek mintz plasmatikora edo lisosometara garraiatzen dituzte hauek.



Erretikulu endoplasmatikoa

ERRETIKULU ENDOPLASMATIKOA estalki nuklearraren hedadura da eta konpartimentu jarraitu bat eratzen du, behin eta berriro tolestu eta luzatzen dena, zaku luzeska eta hodikarak itxuratuz.


Erretikulu endoplasmatiko mota bi daude, eta mikrofotografia elektronikoetan duten itxuraren arabera izendatzen dira.



Milaka erribosoma daude atxikita **ERRETIKULU BIKORTSUAREN** kanpogainazalean (horregatik bikortsu izena).



- Erribosomek polipeptido-kateak sintetizatzen dituzte.
- Erretikuluaren barruan, proteinak tolestu egiten dira, eta estruktura tertziarioa gauzatzen da.
- Batzuk erretikuluaren mintzaren osagai izatera pasa daitezke; besteak zelulako leku ezberdinetara garraiatzen dira.

Zitoplasmako RNAREN parte bat erretikulu bikortsuko erribosomek itzultzen dute polipeptido-katetara. Kate horiek erretikulu bikortsuan sartu eta bertan eraldatzen dira, behin betiko forma lortu arte (intsulina, adibidez).




ERRETIKULU ENDOPLASMATIKO LEUNAK ez du erribosomarik eta ez du proteinarik sintetizatzen.

- Erretikulu bikortsuan ekoiztutako polipeptidoetariko batzuk erretikulu leunean amaitzen dute, entzima gisa.
- Erretikulu leunak lipidoak sintetizatu, karbohidratoak metabolizatu, kaltzioa metatu eta desintoxikazio prozesuetan parte hartzen du.




Golgi aparatua



Erretikulutik datozen besikula asko **GOLGI APARATUAREKIN** fusionatzen dira eta bertan askatzen dute beren edukia.

Organulu horrek itxura tolestua du.

Golgi aparatua





Golgi aparatuko entzimak dira erretikulu endoplasmatikotik iritsitako polipeptido-eta lipido-kateei azken ukituak eragiteko erantzuleak.

Fosfato taldeak eta azukreak lotzen dizkiete, eta hautsi egiten dituzte zenbait polipeptido-kate.

Produktuak (mintz-proteinak, jariatzeko proteinak eta entzimak) sailkatu eta besikula berrietan biltzen dira, mintz plasmatikoraino edo **lisosometaraino** garraiatzeko.

Besikulak




- **BESIKULAK** organulu txikiak dira, sakulu modukoak eta mintzez inguratuak.
- Mota askotakoak dira eta kopuru handitan eratzen dira, beste organuluetatik edo mintz plasmatikotik abiatuta.
- Besikula-mota askok substantziak garraiatzen dituzte organulu batetik bestera, edo mintz plasmatikotik barrurantz zein kanporantz. Beste besikula batzuek bestelako funtzioak dituzte. Besikulak bakarrik eratu eta erdibitzen dira.





Lisosomak

- **LISOSOMAK** animalia-zelulen beste besikula batzuk dira, entzima liseritzaile bortitzak dituztenak.
- Fusionatu egiten dira zelularen hondakinak (molekulak edo partikula txikiak) daramatzaten bakuolekin. Lisosometako entzimak beste besikula batzuetara askatzen dira eta liseritu egiten dute bertako edukia.

Fagozitosia: ameba eta protisto batzuen elikatzeko era. Makrofagoek ere egiten dute.



Autofagia: zelula beraren material organikoa birziklatzeko era.





Bakuoloak

- Animalia- eta landare-zelulek **bakuoloak** dituzte.
- Nahiz eta besikula hauek mikroskopioz hutsaren itxura eman, garrantzi handiko egitekoa betetzen dute. Izatez, zakarrontzi modukoak dira: hondakinak isolatzen dituzte, baita material toxikoak ere.
- Landare-zeluletan, erdiko bakuola handi batek laguntzen du forma eta tamaina mantentzen.




4.8 Mitokondrioak eta kloroplastoak

- Zelula eukariotoek **mitokondrio**etan ekoizten dute ATP gehiena. Arnasketa zelularra egiten duten organuluak dira.
- **Plastidio** izeneko organuluek fotosintesia eta biltegi-lana burutzen dute landareetan eta alga-mota batzuetan.
- Mitokondrioak eta kloroplastoak ez dira endomintz sistemaren parte, nahiz eta mintzez inguraturik egon.



Mitokondrioak




MITOKONDRIOAK ATPa sintetizatzen du.

Arnasketa aerobikoak (oxigenoa behar duena, mitokondrioan burutzen da) beste edozein bide metabolikok baino energia gehiago erauz dezake, konposatu organikoetatik abiatuta.

Mitokondrio tipikoak 1-4 μm luze izaten dira, batzuk 10era iristen direlarik. Badaude adarkatuak direnak ere. Organulu hauek formaz alda daitezke, baita zatitu edo fusionatu ere.

Mitokondrioak



Mitokondrioak **bi mintz** ditu, bigeruz fosfolipidoz eta proteinaz osatuak.

Barruko mintzak tolestura asko ditu, **GANDORRAK**, eta **MATRIZEA** inguratzen du.

Antolaketa-modu horrek konpartimentalizazioa dakarkio.


Arnasketa aerobikoak hidrogeno-ioiak mintz bien artean metatzea dakar, eta horrek ioiek barne-mintza zeharkatzea eragiten du, mintzeko proteina garraiatzaileei esker.

Fluxu horrek sustatuko du ATParen ekoizpena (energiaren txanpon unibertsala).

Zelula eukariotiko gehienek dituzte mitokondrioak. Kopurua aldakorra izaten da zelula-motaren eta organismoaren arabera.

Adibidez, legami unizelularrak mitokondrio bakar bat eduki dezake; gizakiaren muskulu eskeletiko baten zelulak mila edo gehiago.


Energia-eskari handiko zelulek mitokondrio-ugaritasun nabarmena eduki ohi dute.



First eukaryotes found without a normal cellular power supply

Microbe living in chinchilla guts jettisoned its mitochondria

12 MAY 2016 • BY MITCH LESLIE




Article

Current Biology

A Eukaryote without a Mitochondrial Organelle

Graphical Abstract



Authors

Anna Karnkowska, Vojtěch Vacek, Zuzana Zubáčová, ..., Joel B. Dacks, Čestmír Vlček, Vladimír Hampl

Correspondence

ankam@biol.uw.edu.pl (A.K.), vlada@natur.cuni.cz (V.H.)

In Brief


Karnkowska et al. overturn the paradigm that eukaryotes must have mitochondria. Their genomic investigation of the anaerobic microbial eukaryote *Monocercomonoides* sp. reveals a complete lack of mitochondrial organelle and functions including Fe-S cluster synthesis, which is carried out in the cytosol by a laterally acquired bacterial pathway.

Highlights

- *Monocercomonoides* sp. is a eukaryotic microorganism with no mitochondria
- The complete absence of mitochondria is a secondary loss, not an ancestral feature
- The essential mitochondrial ISC pathway was replaced by a bacterial SUF system

Izatez, mitokondrioek bakterioak gogorazten dizkigute, duten tamaina, forma eta biokimika direla eta.

DNA propioa dute matrizean, bakterioenaren oso antzekoa dena, independenteki erdibitzen dira, eta erribosoma propioak dituzte.



Endosinbiosiaren hipotesia

Mitokondrioen ezaugarriak ikusita, **ENDOSINBIOSIAREN HIPOTESIA** proposatu zen.


Honen arabera, mitokondrioak zelula ostalari batean modu iraunkorrean bizitzen hasi ziren bakterio aerobikoetatik abiatuta eboluzionatu zuten.



Lynn Margulis-ek
proposatu zuen
endosinbiosiaren teoria.


Endosinbiosiaren hipotesia

- Uste da zelula batek bestea fagozitzatu zuela edo bizkarroi gisa ezarri zela bertan; nolanahi ere, ez zen digeritua izan.
- Barneraturiko zelula horrek kontserbatu egin zuen bere mintz plasmatikoa eta, halaber, ugaltu egin zen ostalariaren baitan.
- Barneratutako zelula horren ondorengoak, denboraren poderioz, ostalariaren baitako egoiliar iraunkor bilakatuko ziren, zeintzuek babesaren truke ATP gehigarriaren onura eskaintzen baitzuten sinbiosi horretan.



Lehenagoko bizimoduan independenteki irauteko beharrezko egitura eta funtzioak, ordutik aurrera ez ziren premiazkoak eta galdu egingo ziren denboran zehar.


Ondorengoek eboluzionatu zuten mitokondrio bilakatuz.




Kloroplastoak

PLASTIDIOAK fotosintesian eta biltegitratze-lanetan aritu ohi dira landareen eta algen zeluletan.


Hainbat motatakoak izan daitezke, ugarietak hurrengo hauek direlarik:




Kloroplastoak



Kromoplastoak




Amiloplastoak




Tabako-orriaren (*Nicotiana tabacum*) kloroplasto baten mikrofotografia bat, transmisiozko mikroskopia elektronikoz egina.

- Landareen eta protisto askoren zelula fotosintetikoek **KLOROPLASTOAK** edukitzen dituzte, fotosintesisirako espezializaturiko organuluak.
- Disko-itxurakoak edo obalak dira gehienetan eta **DNA propioa** dute.
- Mintz bi dauzkate **ESTROMA** izeneko barne erdilikidoa inguratzen, zeinean entzimak eta erribosomak dauden.
- Halaber, estroma horretan barne mintzak tolesdurak egiten ditu eta konpartimentuak eratu, **TILAKOIDEAK**.
- Tolesdura horiek metaturiko disko lauak dirudite, eta disko-piloei **GRANA** esaten zaie. Fotosintesia horko mintzean burutzen da, tilakoideetan.

- Tilakoideak pigmentu eta proteina asko ditu txertatuta.
- Pigmenturik ugariena **KLOROFILAK** dira, berde kolorekoak.
- **FOTOSINTESIA**n, pigmentuek eta beste molekula batzuek eguzkitiko energia harrapatzen dute eta ATParen eta NADPH koentzimaren sintesia burutzen dute.
- Hauek, ondoren, estroma barruan erabiltzen dira **karbohidratoak** sintetizatzeko, karbono dioxidotik eta uretik abiatuta.



Alde askotatik begiratuta, kloroplastoek bakterio fotosintetikoaren antza dute, eta, mitokondrioaren kasuan bezala, litekeena da **endosimbiosis** eboluzionatuak izatea.



KROMOPLASTOEK klorofila ez diren bestelako pigmentuak sintetizatu eta gordetzen dituzte.

Adibidez, karotenoide ugari dituzte (lore, hosto, fruitu eta sustraiei kolore laranja edo gorria ematen dien pigmentu-mota).

Kromoplastoak kloroplastoekin erlazionaturik daude eta bata bestean bihurtu daitezke.


Adibidez, tomateak heltzen denean kloroplasto berdeak kromoplasto gorri bilakatzen dira.

AMILOPLASTOAK plastidio ez-pigmentatuak dira, almidoi-granuluak metatzen dituztenak.

Oso ugariak dira tuberkuluetakoko zeluletan eta hazietan.


Almidoiz beteriko amiloplastoak dentsuak dira; zenbait landare-zelulatan grabitatearen pertzepziorako organulu gisa aritzen dira.

Kromoplastoak bezala, kloroplastoekin erlazionaturik daude, eta bata bestean bihurtu daitezke.




Peroxisomak

- **PEROXISOMEK** mintz bat dute baina **ez dira endomintzen sistemaren parte**.
- Zitosolean sortutako proteinak eta erretikuluan eta peroxisoman bertan sortutako lipidoak gehituz hazten dira, ez dira endomintzen sistematik irteten.



Peroxisomak



- Hainbat funtzio betetzen dituzte, esaterako, hidrogeno peroxidoa inaktibatzea, zeina gantz-azidoen deskonposizioaren azpiproduktu toxikoa den.
 - Peroxisometako entzimek hidrogeno peroxidoa ur eta oxigeno bihurtzen dute, edo erabili egiten dute alkohola eta beste toxina batzuk deskonposatzeko.
 - Alkohola edatean, gibelesko zelula hepatikoen peroxisomek degradatu egiten dute neurri batean.
 - Gantz-azidoak eta aminoazidoak digeritzen dituzten entzimak ere dituzte.





4.9 Zitoskeleto dinamikoa

- Zelula eukariotikoen nukleoaren eta mintz plasmolikoaren artean **ZITOSKELETOA** dago, alegia, filamentu proteiko askoz osaturiko sistema interkonektatua.
- Sistema horretako parteek indartu, antolatu eta mugitu egiten dituzte zelularen egiturak, baita zelula osoa ere.
- Elementu batzuk iraunkorrak dira; beste batzuk une jakinetan eratzen dira soilik.
- Hiru estruktura molekularrez osaturik dago:



1. Mikrotubuluak
2. Mikrofilamentuak
3. Zuntzexka ertainak



MIKROTUBULUAK
(lodienak)




MIKROFILAMENTUAK
(meheenak)






ZUNTZEXKA
ERTAINAK

Zitoskeletoaren funtzioak




- Zitoskeletoak zelularen forma mantentzen du.
- Motore-proteinekin elkar eragiten du mugimendua sortzeko.
- Zitoskeletoak sortzen dituen errailei esker, zelularen barruan besikulek bidaiatu dezakete.
- Zitoskeletoak aktibitate biokimikoak erregulatzen lagundu dezake.



- Zelula eukarioto guztiek antzeko mikrotubulu eta mikrofilamentuak dituzte, hainbat funtzio betetzen dituztenak.
- Proteina laguntzaileekin elkar eragiten dute, esaterako **motore-proteinekin**; hauek zelularen parteak norabide batean mugitzen dituzte, energia-iturria dutenean (ATP). Molekulak ere garraiatzen dituzte.



- Motore-proteinak burdinbidetik (=mikrotubulu eta mikrofilamentuak dinamikoki loturik) doazen bagoiak lirateke.
- Motore-proteina batzuk kromosomak mugitzen dituzte eta beste batzuk mikrotubuluak elkarrekiko.
- Landare-zeluletan zinesina izenekoek kloroplastoak argitik urruntzen dituzte hau indartsuegia denean, edo kontrara ahulegia denean.





Mikrotubuluak

- **MIKROTUBULUAK** zilindro luze eta hutsak dira, **tubulina proteinaren azpiunitatez** osatuak.
- Aldamio dinamikoa eratzen dute prozesu zelular jakinetarako. Oso arin elkartu eta askatzen dira.
 - Esate baterako, zelula eukarioto bat erdibitu baino lehen elkartzen diren mikrotubuluek banandu egiten dituzte kromosoma bikoiztuak, eta gero askatu egiten dira.






© Cengage Learning



Zentrosomak eta zentrioloak

- Zelula askotan mikrotubuluak nukleotik gertu dagoen **ZENTROSOMA** batetik hazten dira.
- Zentrosoma “mikrotubuluaren antolaketa zentro” bat da.
- Animalia-zelulen kasuan, zentrosoman bi **ZENTRIOLO** daude, bakoitza 9 mikrotubulu hirukotez osatua eta eraztun moduan antolatuta. Zelula bat zatitu aurretik zentrioloa erreplikatu egiten da.
- Landare-zelulen zentrosomek ez dute zentriolorik, baina mikrotubuluak dituzte.




Longitudinal section of centriole

Microtubules

Cross section of centriole


Flagelo eta zilioak

- Mikrotubulu-multzo antolatuak daude **FLAGELO** eta **ZILIOETAN**.
- Hauek dira, adibidez, espermatozoidea ingurune likidoan bultzatzen dutenak.




Flagelo eta zilioak

- Flageloak zilioak baino luzeagoak eta bakanagoak dira eta mugimenduan bereizten dira.
- Zilioen astinketa koordinatuak ematen die bultzada zelula higikorrei ingurune likidoetan, edota likidoa mugiarazten du zelula higiezinen inguruan.
Adibidez, arnasbideak gaineztatzen dituzten milaka zelulen zilioen higidura koordinatuak ekiditen du kanpoko partikula nemiñoak biriketaraino iristea.




(a) Flagella



(b) Cilia


Copyright © 2006 Pearson Education, Inc., publishing as Benjamin Cummings.

- Mikrotubuluek antolaketa jakin bat (9+2) dute, flagelo edo zilio baten luzera osoan hedatzen dena.
- 9+2: bederatzi pare mikrotubuluz osatua, eta erdian beste pare bat.
- Mikrotubuluak **GORPUTZ BASAL** deritzon upel-itxurako egitura batetik hazten dira, zentrioloen gisa aritzen dena.



Flagelo eukarioto baten marrazki eta mikrofotografia, zehar-ebaketan. Zilioak bezalaxe, 9+2 formula erakusten digu.


Gurpilaren erradioak bailira, badaude elementu egonkortzaileak mikrotubuluak patroia horretan mantentzen dituztenak. Gorputz basala zitoplasman dago errotuta.



- Mikrotubulu-pare bakoitza inguratuz, kanpo-eraztunean **dineinazko** besoak daude.
 - Motore-proteina da dineina, ATP bidezko jarduera duena.
- ATParen fosfato taldeen transferentziak eragiten du dineinaren besoak aldameneko mikrotubuluekin lotu, gero tolestu eta azkenean aska daitezen.



Mikrofilamentuak

- **MIKROFILAMENTUAK** harizpi solidoak dira, batez ere **aktina** izeneko proteina globularraren azpiunitatez osatuak.
- Indartu egiten dute zelula eukariotikoen forma, baita eraldatu ere.
- Mintz plasmatisikoaren azpiko euskarria osatzen dute. Zelularen ertzean eratzen diren aktinazko mikrofilamentuek hedatzen dute mintza norabide batean edo mugitu.
- Zelula muskularretan, miosinazko eta aktinazko mikrofilamentuek eragiten dute uzkurketa.



Amebek eta beste zenbait motatako zelula eukariotoek **pseudopodoak** eratzen dituzte.



- Lobulu irregular iragankor hauek handitzen diren heinean, zelula mugitzen da eta harrapakinen bat inguratu dezakete.
- Mikrofilamentuak luzatzean behartu egiten dute lobulua norabide jakinean aurreratzera.
- Mikrofilamentuei elkaturiko motore-proteinek mintz plasmatikoa beraiekin batera mugiarazten dute.



Zuntzexka ertainak

ZUNTZEXKA ERTAINAK dira zelularen zitosketoko osagairik egonkorrenak.

- Bakoitza azpiunitate molekular desberdinez osaturik dago.
- Indartu eta mantendu egiten dituzte zelula eta ehunetako egiturak.
- Esaterako, lamina deituriko zuntzexka ertain batzuek geruza bat eratzen dute, nukleoaren estalkiaren barne-azalari euskarri estrukturala ematen diona.




4.10 Zelularen gainazaleko espezializazioak

- Sarritan beha daiteke horma edo beste estalki babesleren bat zelula eta inguruaren artean.
- Zelula gehienek mintz plasmaticoaren kanpoko materiala sintetizatu eta jariatzen dute.
- Egitura hauen artean daude:
 - Landare-zelulen pareta zelularra
 - Animalia-zelulen matrize extrazelularra (MEC)
 - Zelulen arteko loturak

Landare-zelulen pareta zelularra

Animalia-zelulek ez dute **PARETA ZELULARRIK**, baina landare-zelulek eta protisto eta onddoen zelula askok badute. Zelula babesten dute, forma mantendu eta ur gehiegi sartzea eragozten du.

Paretaren osaera kimikoa aldakorra da espezie batetik bestera, baina zelulosazko mikrofibrilak daude, beste polisakarido eta proteinekin osatutako matrize batean sartuta.




Landare-zelulen pareta zelularra

Landare-zelula gazte batek lehendabizi **PARETA PRIMARIOA** deritzon pareta mehe eta flexiblea jariatzen du.


Zelulen pareta primarioen artean tarteko **lamina** dago, **pektina** eta beste polisakarido batzuetan aberatsa dena eta zelulak elkarrekin itsasten dituen.

Mehe eta malgua denez, pareta primarioak landare-zelula haztea ahalbidetzen du. Pareta primario mehea duten landare-zelulak bakarrik alda daitezke formaz hazkundean zehar.




Helduaroan zelulak ez dira hazten eta materiala jariatzen dute pareta primarioaren barne-azalerantz.


Material horrek **PARETA SEKUNDARIO** tinkoa eratzen du.



B Plant cell secretions form a primary wall. The middle lamella cements adjoining cells together.




C Plant cells also secrete materials in layers on the inner surface of their primary wall. These layers form a sturdy secondary wall. In some tissues, the wall remains after the cells die, becoming part of pipelines that carry water through the plant.




Lignina alkoholezko polimero konplexua da, adar eta sustrai zaharren pareta sekundarioaren %25 izatera irits daitekeena.

Landare-zati lignifikatuak urarekiko jarkikorrangoak dira, eta ez dira hain kalteberak izurriteen erasoen aurrean.

Egurra batez ere pareta sekundarioz osaturik dago.




Pareta zelularrek plasmodesmo izeneko kanalak izaten dituzte, zelulak kontaktuan mantentzen dituztenak.



Matrize extrazelularra

Bizidun multizelularren zelulak **MATRIZE EXTRAZELULAR** batez inguratuta daude eta bertan antolatuta ere. Zuntzezko proteinez eta polisakaridoz osaturiko nahaste bat da; glukoproteina ugariena **kolagenoa** da.

Matrize extrazelularra zelulek jariatzen dute baina bizigabea da, eta ehunaren arabera aldatu egiten da. Euskarri gisa aritu daiteke edo bertan ainguratzeko, baita ehunak elkarrengandik banantzeko, edo zelula-seinalizaziorako ere.




Matrize extrazelularra

Zelularen **pareta primarioak** matrize extrazelulartzat jo daitezke, landareetan gehienbat zelulosazkoak.

Onddoetan kitinazkoa izan ohi da.

Animalietako matrize extrazelularra karbohidrato eta proteina-mota batzuez eratuta egoten da, eta euskarri-funtzioa betetzen du.



© Cengage Learning




Hezurra matrize extrazelularra da batez ere. Matrize oseoa kolagenozkoa da gehienbat: zuntzezko proteina hori gogortu egiten da bertan mineralak jarriz.

Zelula bizia ehun oso gogortuaz inguratua: ornodunen eskeletoaren estruktura horrelakoa da.


Zelulen arteko loturak

Horma batez edo bestelako jariakinez inguraturiko zelula bat ez dago isolatuta, izan ere, gainerako zelulekin elkar eragin dezake.



Espezie multizelularretan, elkarrekintza horiek **LOTURA ZELULARREN** bidez gertatzen dira, zeintzuk zelula bat aldamenekoekin eta inguruarekin konektatzen duten egiturak diren.

Zelulen arteko loturak




Zelulek ioiak, molekulak edo seinaleak bidaltzen eta jasotzen dituzte, lotura jakin batzuetan zehar.

Beste lotura-mota batzuk zelulen artean ezagutzeko eta elkarrekin eta matrize extrazelularrarekin atxikitzeko dira.


Plasmodesmosa

Landareetan **plasmodesmo** izeneko kanalak daude, bien zitoplasma elkartuz.

Ura, ioiak, elikagaiak eta molekula seinale-emaileak bizitasun handiz mugi daitezke plasmodesmoetatik.





© Cengage Learning



Animalia-zelulen loturak

Animalien ehunetan zelulen arteko hiru lotura-mota ohiko daude:

1. lotura estuak
2. lotura trenkatuak (desmosomak)
3. lotura lasaiak (GAP loturak)




**mintz basala
(matrize extrazelularra)**


Lotura estuei esker, zelula-mordo handiek erantzun bakar bateratua ematen diote kinada bati. Adibidez, muskulu kardiakoan uzkurketa-seinale bat berehala pasatzen da zelula batetik hurrengora lotura estuetan zehar, zelula guztiak unitate gisa uzkurtzen direlarik.

LOTURA ESTUEK gainazalak eta barrunbeak inguratzen dituzten zelulak atxikitzen dituzte elkarrekin.

- Lotura hauek zelulak elkarrekin estuki josten dituzte eta likidoek ezin dute lotura zeharkatu.
- Adibidez, liseri-hodietako zeluletan likido gastrikoak urdailetik alde egin eta barne-ehunak kalte ditzala ekiditen dute.




LOTURA TRENKATUEK (desmosomak) ainguratu egiten dituzte zelulak elkarren artean eta matrize extrazelularrarekin; indartu egiten dituzte ehun uzkurkorak, muskulu kardiakoa adibidez.



GAP LOTUREK (lotura lasaiak) kanal irekiak dira aldameneko zitoplasma konektatzen dituzte.

- Landareen plasmodesmoak gogorarazten dituzte.



Pilus sexuala

